

HABE

ENTZUMENA

2. TESTUA

Ondoren San Valentín eguna dela eta, jaiaren jatorriaz irratian ematen dituzten azalpenak entzungo dituzu.

Entzun gaia behin entzungo duzu.

Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena.

Aukeratu erantzun zuzena:

1. *Zer egiten zen Erroman Lupercalia jaietan?*
 - a. Beste ospakizunen artean, santuak zozketatzen ziren.
 - b. Beste ospakizunen artean, udaren hasiera ospatzen zen.
 - c. Beste ospakizunen artean, neskak zozketatzen ziren.
2. *Zer egin zuen kristautasunak V. mendean?*
 - a. Jaiak bi urtez behin ospatzea erabaki zuen.
 - b. Jai haiek bultzatzea erabaki zuen.
 - c. Jaiak debekatu eta aldaketak proposatu zituen.
3. *Zer egin zuen Klaudio II.a enperadoreak?*
 - a. Gerrara joateko jendea ezkontzera behartu.
 - b. Gerrarako onak ez zirelako, ezkontzak debekatu.
 - c. Gerrara joango ziren gudarien ezkontzak antolatu.
4. *Zer gertatu zitzaion San Valentini enperadorearen aginduen kontra aritzeagatik?*
 - a. Lepoa moztu zioten.
 - b. Atzerrira bidali zuten.
 - c. Erreta hil zuten.
5. *Elizak san Valentín proposatu zuen Lupercaliak ordezkatzeko,*
 - a. maitaleak babestu zituelako eta santua jaien garai berean hil zutelako.
 - b. maitaleak babestu zituelako eta santua otsailean jaio zelako.
 - c. maitaleak babestu zituelako eta santua otsailean atzerriratu zutelako.

Aukera itzazu erantzun egokiak eta jar itzazu dagozkien letrak ondoko laukietan:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---